


# *Toki Garapena Krisi Garaian* **PLANTEAMENDU BAT** **DURANGALDEARENTZAT**



- Gure ezagutza esparrua:
  - .. Ekonomi eta gizarte politikak
  - .. Gestio Publikoa
  - .. Legedia
- Gure lan esparruak: Aholkularitza / Ikerkuntza
- Gure bezeroak: Erakunde publikoak (2/3) eta erakunde pribatu batzuk (1/3)

# Gure kokapena azterlan honetan

- Bidean dagoen lana. Jarraitzeko asmoa.
- Kezka bereziak oraindik behar den moduan landu gabeko arlo batzuetan. Nekazaritza ...
- Oraingoz, “Proposamenak” baino gehiago, “Planteamendu bat”.

# Gure kokapena azterlan honetan

- Gure helburua: Deskripzioa baino gehiago, Proposamenak
- Garapen ekonomikoa, Gizarte osoaren ardura
- Gure helburua: Politika publikoak, ekimen publiko eta politikoa.

- Oraindik landu gabeko gaia da guretzat
- Erraza da neurri puntualak baloratzea edo proposatzea
- Baina ez dugu nahi horretan sartzea lehenago ez badugu egiten sektore honen azterketa serio bat, berezko eredu produktibo baten ikuspegitik.
- Derrotismoari aurre egin behar

# Garapen Politikak eta Krisiaren Aurkako Politikak

- Beste ikuspegi batetik: Epe laburreko edo epe luzeko politikak
- Ez da erraza kontzeptuok banatzea.
- Berehalako irtenbideak eskatzen ditu gure gizarteak, premiazko arazoei aurre egiteko:

**LANGABETUAK DURANGALDEAN 31.03.12 (Lanbide)**

**5.495 langabetu**

**14,5%**



# Garapen Politikak eta Krisiaren Aurkako Politikak

- Hala ere, krisiari aurre egiteko politikak eta epe laburreko politikak ez dira gauza bera.
- Luzerako doa krisi hau
- Krisiari aurre egiteko neurriak epe laburrekoak, epe ertainekoak eta epe luzekoak izan beharko lirateke.
- Bestaldetik, krisiak erakusten digu orain arte egindakoa eta egin barik geratu zenaren ondorioak

# DURANGALDEA, ESKUALDE INDUSTRIALA EUSKADIN


- 18.000 lagun industri sektorean

	DURANGALDEA	BIZKAIA	EAE
ZERBITZUAK	57,8%	72,5%	69,5%
<b>INDUSTRIA</b>	<b>34,6%</b>	<b>17,7%</b>	<b>21,1%</b>
ERAIKUNTZA	6,7%	9,1%	8,5%
NEKAZARITZA	0,8%	0,8%	0,9%

Iturria:  
EUSTAT



**1. grafikoa. 16 urte eta gehiagoko biztanleria okupatua, sektore ekonomiko eta eskualdean arabera (%).  
2010-I-1**



# INDUSTRI SEKTOREA

## 16-64 URTEETAKO BIZTANLEGOA INDUSTRI SEKTOREAN ESKUALDEKA (11 ESKUALDE). 2011. Iturria: EUSTAT

ESKUALDEAK	BIZTANLEGO LANDUNA	INDUSTRIA	% LANPOSTU INDUSTRIAN
GASTEIZ	121889	32044	26,29%
AYALA	19993	7618	38,10%
MARGEN DERECHA	70745	10943	15,47%
BILBAO	138041	20405	14,78%
EZKERRALDEA	162470	30963	19,06%
BIZKAIA-KOSTALDEA	52291	12137	23,21%
<b>DURANGALDEA</b>	<b>52685</b>	<b>18163</b>	<b>34,47%</b>
DONOSTIALDEA	205913	38029	18,47%
TOLOSA-GOIERRI	49399	17908	36,25%
ALTO DEBA	27928	12914	46,24%
BAJO DEBA	22941	8696	37,91%
<b>EAE OSOA</b>	<b>924295</b>	<b>209819</b>	<b>22,70%</b>


# INDUSTRI SEKTOREA

BIZTANLEGO LANDUNA INDUSTRIAN UDALERRIKA. BIZKAIA. 2001 (Ez dugu lortu informazio hau gaurkotua)

<b>HIRIBURUA</b>	<b>INDUSTRIAN INDARTSUENAK DIREN UDALERRIAK</b>		<b>INDUSTRIAN INDARTSUENAK DIREN UDALERRIAK, BIZTANLE KOPURU HANDIENAK DITUZTEN 25EN ARTEAN</b>	
<b>BILBAO 25,0</b>	<b>ERMUA</b>	<b>62,2</b>	<b>ERMUA</b>	<b>62,2</b>
	<b>MARKINA-ETX</b>	<b>59,0</b>	<b>ELORRIO</b>	<b>52,5</b>
	<b>ZALDIBAR</b>	<b>58,9</b>	<b>DURANGO</b>	<b>44,9</b>
	<b>ABADIÑO</b>	<b>56,6</b>	<b>ZORNOTZA</b>	<b>44,3</b>
	<b>BERRIZ</b>	<b>55,5</b>	<b>ORTUELLA</b>	<b>41,1</b>

Iturria: INE, GAINDEGIA

# Industria sektoreko langile kopurua, eskualdeka




Iturria: EUSTAT

<b>INDUSTRIAN LANEAN DAUDENAK ESKUALDEKA 2010</b>	
<b>CAPV</b>	<b>210.616</b>
<b>GRAN BILBAO</b>	<b>48.253</b>
<b>LLANADA ALAVESA</b>	<b>26.716</b>
<b>DONOSTIA</b>	<b>20.877</b>
<b>DURANGALDEA</b>	<b>18.858</b>
<b>ALTO DEBA</b>	<b>15.553</b>
<b>GOIERRI</b>	<b>13.055</b>


Iturria: EUSTAT

# INDUSTRI SEKTOREA ESKUALDEKA. Lanpostuak





# INDUSTRI SEKTOREA ESKUALDEKA. Balio Erantsia



2010ko datuak  
Milioika eurotan  
Iturria: EUSTAT



## Bizkaiko Eskualdeak. Langile kopurua

<b>Bizkaia</b>	<b>85.967</b>
Arratia-Nervión	4.288
Gran Bilbao	48.253
Duranguesado	18.858
Encartaciones	1.686
Gernika-Bermeo	3.764
Markina-Ondarroa	3.624
Plentzia-Mungia	5.394

2010  
Iturria: EUSTAT

# INDUSTRI SEKTOREA.

## Bizkaiko Eskualdeak.

### Balio Erantsia Eskualdeka

Bizkaia	5.017.657
Arratia-Nervión	262.427
Gran Bilbao	2.917.560
Duranguesado	1.046.207
Encartaciones	89.007
Gernika-Bermeo	206.767
Markina-Ondarroa	190.118
Plentzia-Mungia	305.571

Milaka eurotan  
2010  
Iturria: EUSTAT

# DURANGALDEAREN INDARGUNEAK

- Sektore produktiboen indarra
- Industriaren indarra (Industriak berak, zerbitzu sektorea mantentzen du, neurri handi batean).
- Kultura industrialak (kemena / ahaleginaren kultura, enpresa kultura, antolakuntza kultura ...)
- Sektore kontzentrazioa? (Automozioa, fundizioa, ...)

# Sektore kontzentrazioa

- Askotan, ahulezi estrategikotzat hartzen da.
- Baina:
  - .. Dentsitate handiko lurraldea da Euskal Herria. Gure alboko eskualde batzuk be indartsuak dira industria sektorean (Debagoiena, Debabarrena, Nerbioi-Ibaizabal)
  - .. Dibertsifikazioaren abantaila asko alboko eskualdeekin batera lor daitezke.
  - .. Bestaldetik, abantaila handiak eskaintzen ditu sektore kontzentrazioak:
    - Sinergiak
    - Elkarlanerako sareak, ezagutza sareak, ekimen berriak, etab. (ikerkuntza, prestakuntza zikloak, etab. ...)

# SEKTORE KONTZENTRAZIOA

- Automozioa, fundizioa ... sektore “helduak” izanik, ... ez du ematen egoera onena denik ...
- Baina 30 urte gabiltza egoera “pesimista” honekin. Eta sektore hauek hemen jarraitzen dute. Eta jarraituko dute.
- Sektore guztietan, horietan ere, borrokatu behar dugu.

# EKONOMI GARAPENA ETA GIZARTE GARAPENA

- Kontzeptu biak batzeko beharra
- Kultura nagusia krisiaren jatorrian dago
- Durangaldea: Industria kutsagarria. Industria egitura berriztatzeko prozesua sustatu beharko litzateke?
- Jarduera produktiboak gutxiestea. Tertziarizazioa. Finantzarizazioa. Gainzorpetzea eta “post-industrialia” izan behar zen gizartea ...



# EKONOMI GARAPENA ETA GIZARTE GARAPENA

- Garapen produktiboa, “burdina”, “erreakzionarioak” izan dira. Zerbitzuak, finantzak, ... izan dira benetan aurrerakoiak.
- Etorkizuna berreraiki behar dugu.
- Gizarte Garapenaren ikuspegi berria: Ez da ekonomi garapena oztopatzeko tresna bat, ekonomia enpresarien esku utzirik.



# EKONOMI GARAPENA ETA GIZARTE GARAPENA

- Ekonomi Garapena eta Gizarte Garapena, kontzeptu bakarraren aldagaiak.
- Kontzeptu biak berraztertu behar ditugu, beraz.
- Ekonomiaren kontzepzio berria (Ez abstrakzio makroekonomikoa, ez eta kontzeptzio “produktibista” hutsa ere)

# EKONOMI GARAPENA ETA GIZARTE GARAPENA

- Ekonomia: Giza sormena eta ahalegina inguruaren etengabeko hobekuntzara –interes orokorreko helburuetara- bideratzea baizik ez da.
- Honek eskatzen du:
  - a) interes orokorreko helburuen kontzepzio komunitarioa
  - b) helburu horiek lortzeko behar diren tresnak martxan jarri. **EKONOMIA BIDERATU / “LIDERGOA HARTU”**.

# EKONOMI GARAPENA ETA GIZARTE GARAPENA

- Ekonomia ez dute enpresek bakarrik egiten. Enpresetatik aparte, erakunde publikoak, ikastetxeak, ikerguneak, gizarte eta kultura dinamizatzeko guneak, ...
- Enpresen barne: Enpresak ez dira bakarrik enpresarien ahaleginen ondorioa: Enpresariak, langileak, sindikatuak, hornitzaileak, bezeroak, finantza erakundeak, erakunde publikoak, inguru instituzionala, ... denon arteko ahalegina funtsezkoa da.

# EKONOMI GARAPENA ETA GIZARTE GARAPENA

- Durangalderako benetako gizarte politika: Ekonomi Garapena ez da bakarrik onartu edo jasan behar den errealitatea. Edo bertatik zergak, lanpostuak etab. eskuratzeko tresna hutsa.
- DURANGALDEAREN LIDERGOA  
HARTZEKO ASMOA DUEN BENETAKO  
GIZARTE POLITIKA BATEK, NAHITAEZ,  
EKONOMI GARAPENAREN LIDERGOA  
HARTZEKO BEHARRA DU.

# EZAGUTZA ETA BALOREAK DURANGALDEAN

## TOKIKO GARAPENAREN OINARRIAK:

- .. Betiko kontzepzioan, azpiegitura fisikoak, garraioak, oinarrizko zerbitzuak, ...
- .. Gero eta gehiago, eskualde garatuetan, aktibo intangibleak / ukiezinak (ezagutzaren kudeaketa)

# EZAGUTZA ETA BALOREAK DURANGALDEAN

- DURANGALDEAN: Garraioak ...
- Baina, gero eta gehiago, ezagutzaren kudeaketa: ikerkuntza, prestakuntza, “enpresa-ezagutza sareak”
- Epe ertaineko estrategiak, batez ere, ezagutzaren kudeaketarekin lotu behar dira.



# EZAGUTZA ETA BALOREAK DURANGALDEAN

- Orduan, Ezagutzaren Kudeaketa da garrantzitsuena epe luzera?
- BA EZ.
- Gure ustez, epe luzera, Baloreen Kudeaketa da helburu funtsezko eta determinantea, Ezagutzaren Kudeaketa baino gehiago.



# EZAGUTZA ETA BALOREAK DURANGALDEAN

- Zer egin da horretaz Durangaldean? Ezer gutxi.
- Azken hamarkadan, “ekintzailetasunaren kultura”. Eta krisialdia lehertu eta gero, kultura industrialia berreskuratzeko beharraz hasi da hitz egiten.
- Durangaldearen helburu estrategikoak (Enplegu Plana):  
*“Kultura ekintzailea sustatu”* eta helburu honekin:

*“hiritar ekintzaileak eta enpresariak laguntzeko helburua duten tresnak sortu, bideragarriak diren proiektuak martxan jartzeko prozesuan eta horien garapenean”*

# EZAGUTZA ETA BALOREAK DURANGALDEAN

- Baina kultura ekintzailea sustatu eta ekintzaileari laguntzea ez dira gauza berdinak.
- Durangaldean gizarte baloreen kudeaketa giza talde zabaletara bideratu behar da.
- Kultura ekintzailea baino askoz gehiago izan behar da
- Ekonomi garapena ezin da utzi enpresarien eskuetan bakarrik

# EZAGUTZA ETA BALOREAK DURANGALDEAN

- Ekonomi garapena ez da posible enpresariak bakarrik badaude ekonomi garapenaren kultura murgilduta.
- Etorkizunera begira:
  - .. Ekonomia, enpresa, teknika eta teknologia arloetako ezagutza sustatu behar da
  - .. Baina, batez ere, baloreen kudeaketa berri bat behar dugu, ekonomi garapen kolektibora begira, eta garapen horretan Durangaldeko biztanlego osoak izan behar duen parte hartze aktibora begira.

# EZAGUTZA ETA BALOREAK DURANGALDEAN

- Ez bakarrik kultura industrialia
- Kemena / Ahalegin gaitasuna
- Norbanako eta gizarte konpromisoa

(Ekonomi Garapen bizia, anitza eta demokratiko  
baterako OINARRIAK)

# EZAGUTZA ETA BALOREAK DURANGALDEAN

- Baloreok landu eta sustatzeko ardura: Durangaldeko erakunde publikoak.
- Familiak, ikastetxeak, komunikabideak, ...eragile guztiekin elkarlanean
- Programa zuzenak

# EZAGUTZA ETA BALOREAK DURANGALDEAN

- Kemena, elkartasuna eta konpromisoan oinarritutako gizarte balorerik gabe, ezinezkoa da, epe luzera, garapen ekonomikoa.
- Baloreok ezin dira izan “ekintzaileen” baloreak bakarrik. Gizarte osoaren ardura da eta balore horiek gizartearen gehiengo baten landu eta sendotu behar dira.



# ERRONKA TEKNOLOGIKOA

- Ekipamendu teknologikoa ez da Durangaldeko Ekonomiaren arazo bat.
- Durangaldeko Ekonomiaren ARAZOA da.
- Durangaldea: Maila teknologiko txikia edo ertaina duten enpresa txiki eta ertainek osatutako industri egitura, lehiarako oso kokapen arriskutsua dutenak.
- Hazkunde garaietan ez da igartzen. Mota guztietako enpresentzat dago behar den eskaera, antza.
- Baina eskaera jaisten denean, enpresa onenak eta efizienteenak aukeratzen ditu merkatuak. Gaitasun teknologiko gutxikoak jausiz doaz.

- Hautaketa hau bi zentzutan egiten du merkatuak:
  - A) Arlo teknologikoan Durangaldekoak baino hobe kokatuta dauden enpresekin.
  - B) Herrialde emerjenteetako enpresekin, hauen maila teknologikoa txikiagoa edo antzekoa izanik baina askoz koste txikiagoekin.

# ERRONKA TEKNOLOGIKOA

- Lehiakortasun teknologikoa galtzea mehatxu larria da edozein eskualderentzat. Aspaldiko mehatxua izan da Durangaldean.
- Baina herrialde emerjenteen gaur eguneko mehatxua hori baino askoz gehiago da.
- Ez dira gertaera puntualak edo koiunturalak edo krisialdiaren epe laburreko ondorioak.
- Europako herrialde periferikoen egitura industrialaren hainbat sektore ezabatzearekin mehatxatzen duen uholdea da.

- Gainera, uholde horren aurrean:
  - Oraingo krisialdiak erantzuteko gaitasunik gabe uzten gaitu nolabait.
  - Aurreko urteetako geldotasuna ordaintzera behartzen gaitu.

- Durangaldeak duen arazo teknologikoaren larritasuna hainbat hamarkadatan I+Gn gutxi inbertitzearen ondorioa da.

# I+G / BPG. BARNE GASTUA ESKUALDEKA (2011). Eustat

<b>C.A. DE EUSKADI</b>	<b>2,06</b>
Arabako Ibarak/Valles Alaveses	0,60
Arabako Lautada/Llanada Alavesa	1,94
Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa	0,37
Arratia-Nerbioi/Arratia-Nervión	1,29
Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa	0,50
Bilbo Handia/Gran Bilbao	2,02
Deba Beherea/Bajo Deba	4,31
Debagoiena/Alto Deba	4,26
Donostialdea/Donostia-San Sebastián	2,70
<b>DURANGALDEA</b>	<b>1,60</b>
Enkartazioak/Encartaciones	0,03
Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa	0,48
Gernika-Bermeo	1,66
Goierra	2,63
Gorbeia Inguruak/Estribaciones del Gorbea	0,83
Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa	0,78
Markina-Ondarroa	1,95
Plentzia-Mungia	1,36
Tolosaldea/Tolosa	0,85
Urola-Kostaldea/Urola Costa	1,62



• Ikusten denez, Durangaldea (%1,60 / BPG) EA Eren bat az bestekoaren azpitik dago. Baina gainera:

- a) Hiru hiriburuen azpitik: Bilbo Handia (%2,02), Donostialdea (%2,70%), Arabako Lautada (%1,94).
- b) Eskualde industrialen azpitik: Debagoiena (%4,26), Debabarrena (%4,31%) edo Goiherri (%2,63).
- c) Industrian pisu txikia duen hainbat eskualdeen azpitik ere: Gernika-Bermeo (%1,66), Markina-Ondarru (%1,95) eta Urola Kosta (%1,62).

- Baina gure benetako egoera ulertzeko, Durangaldeak EAEn duen kokapenetik aparte, EAEk berak Europako eskualde aurreratuen aurrean duen kokapena ere hartu behar dugu kontuan:

INVERSION EN I+D 2009	
NUTS 2 REGION	% GDP
Braunschweig	7,93
Pohjois-Suomi (2006)	6,58
Stuttgart	6,44
Sydsverige	4,73
Oberbayern	4,63
Tübingen	4,55
Östra Mellansverige	4,55
Västsverige	4,32
East of England	4,31
CAPV	2,12

<b>INBERTSIOA I+Gn 2009</b>	
<b>NUTS 2 ESKUALDEAK</b>	<b>% GPD</b>
<b>Braunschweig</b>	<b>7,93</b>
<b>Pohjois-Suomi (2006)</b>	<b>6,58</b>
<b>Stuttgart</b>	<b>6,44</b>
<b>Sydsverige</b>	<b>4,73</b>
<b>Oberbayern</b>	<b>4,63</b>
<b>Tübingen</b>	<b>4,55</b>
<b>Östra Mellansverige</b>	<b>4,55</b>
<b>Västsverige</b>	<b>4,32</b>
<b>East of England</b>	<b>4,31</b>
<b>EAE</b>	<b>2,12</b>

Iturria:  
EUSTAT

- Teknologia arloan, oso txarto dago kokatua EAE, Europako eskualde aurreratuen aurrean.
- Durangaldea, bere aldetik, oso txarto dago kokatua euskal eskualde industrialen artean.
- **GAINERA:** Eskualde bateko kontzentrazio industrialak gero eta handiagoa izan, handiagoa da bere kokapen teknologikoa mantentzeko behar duen inbertsio teknologiko maila.

- **ONDORIOA:** Testuinguru honetan, ez da harritzekoa gure enpresek gero eta arazo gehiago izatea lehiakortasuna mantentzeko. Eta, eskaera jaisten den garaietan batez ere, kokapen erlatiboak galtzea eta salmentak nabarmen jaistera.

- Durangaldearen arazo hau ez da berria
- Orain dela hainbat hamarkadetatik datorren etengabeko mehatxua da:
  - Maila teknologiko ertain edo txikiko sektoreetan dugun kokapenagatik
  - Gure egitura produktiboak bere maila teknologikoa handiagotzeko egin duen ahalegin eskasagatik.



- Ondorio nabaria: ERANTZUKIZUN POLITIKOAK
- Durangaldeko erakunde publikoek ezin dezakete gauza handirik egin epe laburrera.
- Baina gauza asko egin daiteke epe ertain eta luzera. Eta ez da egin.
- 180 gradutako aldaketa behar dugu ekonomi garapenerako gure politiketan.
- Durangaldeko erakunde publikoen ahalegin guztiak bideratu behar ditugu teknologiaren aldeko apustu baterantz.

# PRESTAKUNTZA

- Durangaldearen egiturazko erronka
- Prestakuntza aldetiko gaitasunak eta egitura produktiboaren beharrak ez datoz bat
- Defizit teknologikoa eta langile eta enpresarien prestakuntza maila zuzenki erlazionatuta daude.
- Ekipamendu teknologikoa berriztatzeko edo handitzeko norbanako zein taldeko ekimenen oinarria da prestakuntza.
- Prestakuntza egokirik gabe, askoz zailago da makineria modernoagoa erabiltzen hastea, produktuetan, prozesuetan edo estrategietan aldaketa berritzaileak ezartzea, etab.

- Arazo larria da:

## Durangalderako Enplegu Plana:

*“Balio erantsi handiagoko produktu eta zerbitzuetara aurrerapausuak emateko ... langile kualifikatuen falta”.*

- Garapen teknologikoan ditugun beharrak eta gure langileen prestakuntza gaitasunak ez datoz bat. Durangaldearentzat egiturazko arazo larria da.

# PRESTAKUNTZA

- Orain 40 urte, ulergarria izango zen: Unibertsitate egiturarik ez, lanbide heziketako egiturak ez oso garatuak, prestakuntza iraunkorra sustatzeko tresnarik gabe.
- Durangaldean hau gertatzea XXI. Mendeko bigarren hamarkadan ez da onargarria.
- Eskualde honen gizarte eta ekonomi garapenaren kudeaketan gure erakundeek –publiko zein pribatuek- izan duten porrotaren ondorioa da.

# PRESTAKUNTZA

- Orain baditugu beharrezkoak diren tresnak.
- Ez bakarrik hiritarren prestakuntza gaitasunak egitura produktiboaren beharretara egokitzeko.
- Alderantziz, hiritarren gaitasunak handitzeak, berez, egitura produktiboaren maila teknologikoaren handitzea sustatu behar du.

# PRESTAKUNTZA

- Prestakuntza gabeziak: Aztertuta daude (Behargintza ...)
- Ez datoz bat gabezi eta beharren diagnostikoa eta, bestaldetik, kualifikatu gabeko langileen kontratazio masiboa.
- Enplegu Plana 2012: Funtsezko arazoa: *“Litzentziatura teknikoetan eta goi mailako prestakuntza zikloetan ... langile kualifikatuen falta”*.



# PRESTAKUNTZA

- Erantzuna ez da enpresena bakarrik izan behar, Durangaldeko gizarte osoarena baizik.
- Azkenean, erakunde publikoen erantzukizuna.
- Behargintzak emandako informazioaren arabera, unibertsitatea eta prestakuntza zikloen arteko betiko eztabaidatik haratago doa gure arazoa.
- Prestakuntza tekniko edo teknologikoa eta prestakuntza humanistikoaren arteko dialektikan dago sakoneko arazoa, batez ere.

# PRESTAKUNTZA

- Oro har, ahalegin handiago bat egin behar dugu prestakuntza / orientazioa esparru tekniko eta teknologikoetara bideratzeko.
- Batez ere, gizarte oztopo eta oztopo psikologiko batzuk gainditu. Adibidez:

**Prestakuntza ziklo tekniko  
edo teknologikoak**

**Giza zientzien unibertsitate  
arलो espezialitateak**

Azken arazo hau orokorra da Euskal Herrian. Irtenbidea ez datza erantzukizuna ikasle eta gurasoen esku jartzean. Goi mailako hezkuntza egiturazko aldaketa behar dugu, oraingo klasismoa gainditzeko. Botere publiko eta gizarte osoaren ardura da.

# PRESTAKUNTZA

- Kontua ez da unibertsitate gehiago edo prestakuntza ziklo gehiago.
- Behar duguna da prestakuntza tekniko, teknologiko eta zientifikoa indartzea. Bai prestakuntza zikloetan zein unibertsitate mailakoa.
- Durangaldeko gizarte osoaren erronka da.
  - Familiak
  - Ikastetxeak. Irakasleak. DBHko irakasleak. Zuzendaritza.
  - Kultura industrialak teknologikoa eta zientifikoa sustatzeko ekintza planak (Erakunde publikoak, Behargintza ...)
  - Ekonomi garapenarekiko konpromisoa sustatu

# PRESTAKUNTZA

- Hau guztia ez da hezkuntza enpresen interesen menpe jartzea. Alderantziz.
- Gure gazteak ekonomi garapenaren eragile aktiboak –eta ez ikusle pasiboak- bihurtzea da kontua.
- Beharrezkoa da azken hamarkada hauetan Ekonomiari buruz zabaldu den kontzeptua gainditzeko: Enpresari talde txiki baten esku utzi behar da Ekonomia, eta hauek gizarte pasibo bat garapenera narrasten dute.

# PRESTAKUNTZA

- Aldaketa ekonomiko, tekniko eta zientifikoa ulertu, onartu eta kontrolpean duen gizarte eragilea.
- Ekonomiaren protagonista –eta bere etorkizunaren protagonista- den gizarte eragilea, gazteri aktibo baten bitartez, aurrerapen teknologiko eta industrialean ere lehen mailako protagonismo hartzen duena.

# PRESTAKUNTZA

- Epe laburrera, prestakuntza iraunkorra da gure enpresen erronka funtsezkoa
- Behargintza: Jarrera aktiboa
- Haiengandik hurbil dagoen kudeaketa eskatzen dute enpresek.
- Gure erakunde publikoen jarrera aktibo eta eraginkorra behar dugu ere.



# PRESTAKUNTZA

- Kontratazio-politiketan gertatzen ari denari buruz diagnostiko argi bat behar dugu:
- 2012ko Enplegu Planean azaldutako “ARAZOAK”:

# PRESTAKUNTZA

*“.. Bajo nivel competencial en puestos de mano de obra directa: escaso número de titulados y conocimiento teórico, insuficiente habilidad práctica para resolver diversas cuestiones y tareas (leer planos, realizar mediciones, proponer cambios, etc.).*

*.. Carencia de formación polivalente de personal empleado para contar con capacidad para desempeñar diversas funciones: carencias actitudinales de cara a la actividad laboral.*

*.. Carencia de inversión en “calidad personas” (trabajando los niveles de desempeño para que todas las personas lleguen a su nivel óptimo”).*

# PRESTAKUNTZA

- Guztiz larria den arazo honi buruzko berezko diagnostikoa behar dugu
- Sindikatu eta enpresarien ikuspuntua
- Hau dena ez dela berriro gertatzen ziurtatzeko hartu behar diren neurriak


# LANBIDE GAITASUNA

- 2012. DEE-AED, Durangaldeko Enpresarien Elkarte. WebOrria.

Lanbide Gaitasunen banaketa “desiragarria”:

<b>LANBIDE GAITASUNA</b>	<b>PORTZENTAIA DESIRAGARRIA 2020RAKO</b>
<b>Graduak / Masterrak</b>	<b>%14</b>
<b>Teknikoak eta erdi-mailako arduradunak</b>	<b>%76</b>
<b>Kualifikaziorik gabekoak</b>	<b>%10</b>

- Banaketa desiragarria eta Durangaldearen egoera 2010. Eustat. DEE-AED



- Oso epe laburreko estrategiak enpresetan
- Gauzak gero eta hobe egiteko helburuari uko eginez, betikoa egin lan kosteak murriztuz.
- Gai honi buruzko eztabaida sozial edo politikorik ez da egon
- Geldotasun politikoaren ondorio larriak adierazten ditu
- Udalak, mankomunitatea, beharrezko informazio tresnak izan behar zituzten eskuragarri, eta gai hau enpresariekin kudeatu, gertatutakoaren arrazoiak aztertu, bai eta arazoari aurre egiteko neurriak ere.



- Gizarte eragileei eta eragile politikoei gertatutakoa jakinarazi
- Gertatzen ari zena zuzentzen zela ziurtatu.
- Durangaldearen ekonomi garapenean egon den lidergo politikoaren faltaren ondorioa.
- Enpresariak oso ondo kudeatzen dituzte epe laburreko erronkak. Baina botere publikoei dagokie enpresarien epe ertain eta luzeko jarduerak interes orokorrekin bat datozela ziurtatzea.

# LIDERGO POLITIKOA

- Lidergo politikorik gabe, noraezean dabilen ekonomia bihurtzen da eskualde bateko egitura ekonomikoa.
- Hauxe da, hain zuzen, azken hamarkada hauetan Durangaldean gertatu dena.
- Durangaldeko ekonomi garapenera begira, lidergo politikoada sustatu behar diren gakoetako bat.
- Lidergo politikoa ez da eragile ekonomikoekin batera argazkiak ateratzea edo interes mediatikoa duten ekintza publikoetan parte hartzea.

# LIDERGO POLITIKOA

- Lidergo Politikoak eskatzen du:
  - a) Durangaldearen gizarte etorkizunerako ekonomi garapenak duen garrantziaz konturatzea
  - b) Ekonomi Garapena sustatzeko orduan erakunde publikoen ekimenak duen garrantziaz konturatzea. Eta, beraz, garapen horren ardura hartzea.
  - c) Ekonomia produktiboaren garapena aktiboki sustatzeko behar diren konpromisoak hartzeko prest egotea
  - d) Durangaldeko jarduera ekonomikoaren epe luzeko norabidearen lidergoa hartzeko behar diren konpromisoak hartu. Bai eta norabide hori Durangaldearen interes orokorren zerbitzura jartzea.

# LIDERGO POLITIKOA

- Ez da Durangaldeko enpresen edo enpresarien “segidismoa” egitea.
- Haiekin lan egin behar da, oso hurbil, komeni denean, baina, beti ere, interes orokorrak babesteko konpromisoaren ikuspegitik.

# LIDERGO POLITIKOA

- Garrantzi handikoa: Kontua ez da interes orokorrak babestea ekonomi garapenaren arazoan “aurrean” (ingurugiroa, hirigintza, ...)
- Alderantziz, ekonomi garapena bera interes orokorreko helburuen artean kokatu behar da. Ez bakarrik, beharrezkoa denean, enpresen jarduera zalantzetan jarriz edo mugatuz.

# LIDERGO POLITIKOA

- Aktiboki kokatu behar gara ekonomi garapenaren aurrean, enpresak eta enpresariak lagunduz, behar denean, ekonomi garapen bidetik urrats berriak ematera.
- Baita ere, bide honetatik enpresek egiten ez dutena zalantzetan jarriz. Edo zer nolako garapen eredua ezartzen den. Edo nola ezartzen den.



# LIDERGO POLITIKOA

- Enpresen jarduera errespetatu behar da, bai eta enpresen barne jarduerari buruz enpresariak duten ezagutza ere.
- Enpresekiko etengabeko elkarrizketarako bideak zabalik mantentzea
- Baina, bestaldetik, interes orokorrengan haien jarduerak dituen eraginei buruz informazio gutxiago dute enpresariak.

# LIDERGO POLITIKOA

- Epe luzeko helburuak babestu, enpresa askok duen epe laburreko erabakiak hartzeko joeraren aurrean.
- Enpresen proiektuen “segidismo” hutsetik haratago. Aurretik joan behar da.

# LIDERGO POLITIKOA

- Ez bakarrik enpresen aurrean.
- Beste erakundeak eta tokiko ezagutza sareak
- Bitarteko erakundeen laguntza (enpresarien elkarteak, dendariak, sindikatuak, ...)
- Baina, beti ere, azken ardurak eta erantzukizunak arlo politikoan daudela ahaztu gabe.

# LIDERGO POLITIKOA

- Horrek eskatzen du –erakunde publikoen aldetik-:
  - Azken erantzuleak direla onartzea
  - Prestatu eta informatuta mantentzea
  - Zuzenki esku hartzea beharrezko denean eta posible den neurrian.
  - Haien aginpideen barne, eta dituzten giza eta finantza baliabideekin. Epe laburrera, askotan, ez dira nahiko. Baina epe ertainera, behar diren lanaz eta ekimenaz, Durangaldearen jarduera ekonomikoaren etorkizunerako hil ala bizikoa izan daiteke jarrera hau.

# Aldaketa posible da

- EKAI Center-en Ekonomiaren aurreko jarrera proaktiboa da.
- Ez gara konformatzen txarto dagoenaz kexatzearekin.
- Ez planteamendu fatalista edo ezkorrak
- Ekonomia, hain zuzen, ez da errealitate fisiko baten deskripzioa, baizik eta “giza jarduera –ahalegina eta sormena- ren bidez errealitate horren aldaketa”

# Aldaketa posible da

- Aldaketa beti da posible. Aldaketa hori erraza edo zaila izan daiteke, baina beti da posible. Gure eginbeharra da horretarako proposamenak egitea, ekimenak eta politiken bidez.
- Baina ezer ez da lortzen lan egin eta borrokatu gabe.
- Lan egin eta borrokatu behar dugu, beraz. Eta ez bakarrik enpresariak edo politikoak. Durangaldeko gizarte osoaren lana da.



- Bidean dagoen lana da hau ...
- Jarraitzeko asmoa daukogu ...



***Eskerrik asko etorri zarien  
guztioi!!!!!!***

# *Toki Garapena Krisi Garaian* **PLANTEAMENDU BAT** **DURANGALDEARENTZAT**

